

1.BALIO PROPOSAMENA



Konturatu baino lehen garbitzen duen robota. Zure airea, etxea eta ongizatea zaintzen ditugu.

Robot gehienek garbitzen dute zuk esaten diezunean, gure haratago joan gara, zure etxea adimentsua bihurtzea eta hark bere burua bakarrik garbitzea nahi genuen. Airea "sentitzeko" gai den robot bat diseinatzen dugu: hautsa edo partikulak detektatzen ditunean, zuk nabaritu baino lehen ere jarduten duena. Garbiketa baino gehiago da. Ongizatea, adimena eta lasaitasuna da

Garbiketa, etxe guztietan antolatu behar den gaia da, azken batean, etxe guztiak garbitu behar baitira eta horretarako antolaketa bat behar da. Halaber, zenbait etxetan antolaketa horrek eragin zuzena izan dezake familientzat.

Etxe askotan hautsa arazo larria da. Jende askok alergia ugari ditu, horien artean, hautsarena dagoena. Bestalde, asma dutenentzat hautsa arazo izugarria izan daiteke, eta, azkenean, bere etxeetan deserosotasun izugarria senti dezakete lurretan zein paretetan hautsa kantitate handia pilatzen baita. Robotak eta xurgatzaileak dauden arren, hauek askotan noizean behin jartzen dira bakarrik, eta beste kasu batzuetan, gehiegi jartzen dira. Noizean behin jartzen diren kasuetan zetratuko gara, hauek askotan denbora faltagatik edota energia aurrezteagatik ez dute jartzen robota martxan eta hauts kantitatea pilatzen da. Hori saihesteko, hautsa detektatzen duen sistema bat beharrezkoa dela uste dugu, hori robotera konektatua dagoena. Horrela, hautsa pilatzen denean, robota bakarrik garbitzen hasiko da, hautsa jasotzen eta energia aurrezten, bakarrik beharrezkoa denean martxan jarriko baita.

Bestalde, sistemak beste motatako zikinkeriak ere detektatu ditzake eta IA erabiliz plangintza bat egingo du robotek ezin dituzten guneak garbitzeko, hala nola paretak, mahaia, altzariak... Horrela, garbitzerako orduan eraginkortasuna zein debora aurrezteko lortuko da.

Horretarako, merkatuan existitzen diren material hoberenak erabiliko ditugu eta DustQuant sistema berritzailea aurkezten dizuegu. Sistema hau, automatikoki hautsa detektatzen duenean robota automatikoki konektatzean eta garbitzen hastean datza. Gure teknologia maximora optimizatu dugu, horrenbestez, gure sentsores berritzaileak, tamaina perfektua dauka, eta pertsonalizazio osoa eskaintzen dugu. Etxearen giroarekin erabat kamuflatzen da.

Azkenean, teknologia eskaintzeaz gain, fidagarritasuna, erraztasuna, sendotasuna, osasuna eta denbora ere eskaintzen dugu."Hartu arnasa hobeto, zure etxeak bakarrik zainduko zaitu".

Bestalde, gure produktuak garbiketa sutuago bat eskaintzen du. Normalean hautsa garbitu edo kentzerakoan asko mugitzen gara gelatik eta horrek hautsa mugitzea eta airean geratzea ekartzen du. Dust Sentsoreari esker, hauts hori detektatuko du eta xurgagailuak automatikoki xurgatuko du.

